



Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 1/2020 ebazpena

Recurso 5/2019 errekurtsua

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) elkarteak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei zuzentzen zaizkien berehalako harrerarako edo egonaldi laburrerako zentroko (Urrats 1), egonaldi ertaineko zentroko (Urrats 2) eta autonomia pisuetako zerbitzuaren kontratuaren baldintza agirien (Diputatuen Kontseiluan 2019ko urriaren 14an hartutako erabakiaren bidez onartuak) aurka ezarritako kontratazio arloko errekurtsu berezian, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian aipatzen diren kideak bertaratu direlarik, erabaki hau hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos del contrato del servicio del centro de acogida inmediata o de corta estancia (Urrats 1), centro de acogida de media estancia (Urrats 2), y los pisos de autonomía para mujeres víctimas de violencia machista, aprobados por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 14 de octubre de 2019, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2019ko azaroaren 11n Auzitegi honen erregistroan aurkeztutako idatziaren bidez, AGISASek kontratazio arloko errekurtsu berezia aurkeztu zuen ebazpen honen sarreran aipatzen den kontratua arautzen duten baldintza agirien aurka.

BIGARRENA.- Azaroaren 13an, Auzitegiak Gizarte Politiketako Departamentura bidali zuen errekurtsua, eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuenak, 56.2 artikuluan xadatutakoari jarraikiz, kontratazio espedientea eta

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 11 de noviembre de 2019, AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos que rigen el contrato citado en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- En fecha 13 de noviembre el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Políticas Sociales y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del

dagokion txostena eskatu zituen.

HIRUGARRENA.- Azaroaren 15ean, kontratazio espedientea eta departamentuaren txostena sartu ziren Auzitegiaren erregistroan. Bertan proposatzen da errekurtsua ezustea.

LAUGARRENA.- Azaroaren 25ean, proposamenak aurkezteko epea amaitu zen egunean, proposamena aurkeztu duten lizitatzaileren nortasunari buruzko informazioa eskatu zion Auzitegiak departamentu kontratatzaileari, errekurtsuaren berri emateko. Errekerimendu hori azaroaren 29an bete zuen departamentuak.

BOSGARRENA.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 56.3 artikulua betetzeko, abenduaren 3an errekurtsuaren berri eman zitzaizen proposamen bat aurkeztutako hiru entitateei, alegazioak egin zitzaizkien bost laneguneko epean. Epe hori igarota, inork ez du alegaziorik aurkeztu.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Errekurtsuaren onargarritasuna

LEHENENA.- Errekurtsu berezi hau aurkeztu da Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 44.1.a) artikuluan aurreikusitako zerbitzu kontratu baten baldintza agirien aurka. Kontratu horren balio zenbatetsia 2.562.640,60 euro da.

Beraz, kontratazio alorreko errekurtsu berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita SPKLren 44.2.a) artikuluan eta Auzitegi honi dagokio errekurtsuaren berri izateko eskumena, hain zuzen ere Kontratazio Alorreko Errekurtsuotarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuko 2.1 artikulua emandakoa.

BIGARRENA.- Errekurtsogilea errekurtsua

Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe.

TERCERO.- El 15 de noviembre tuvieron entrada en el registro del Tribunal el expediente de contratación y el informe del departamento, en el que se propone la desestimación del recurso.

CUARTO.- El día 25 de noviembre, fecha en la que finalizó el plazo para presentar proposiciones, el Tribunal solicitó al Departamento contratante información sobre la identidad de los licitadores que hubieran presentado proposición, a efectos de darles traslado del recurso. Este requerimiento se cumplimentó el día 29 de noviembre por el Departamento.

QUINTO.- En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, el día 3 de diciembre se dio traslado del recurso a las tres entidades que presentaron proposición para que pudieran formular alegaciones en el plazo de cinco días hábiles, transcurrido el cual no han presentado ninguna.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Admisibilidad del recurso

PRIMERO.- El presente recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios de los contemplados en el artículo 44.1.a) LCSP, cuyo valor estimado asciende a 2.562.640,60 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo el artículo 44.2.a) LCSP, y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- La recurrente está legitimada para



jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 48. artikuluan, eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan, aurkaratzen duen agirien kontratuaren xedarekin zerikusia duten interesak ordezkatzeko dituen elkarteak delako, eta bertako kideen interes kolektiboak defendatzeko dituelako.

HIRUGARRENA.- Errekurtsoa hamabost laneguneko epean aurkeztu da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 50.1.b) artikulua aurreikusten duen bezala, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia eta pleguak 2019ko urriaren 22an argitaratu zirela Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman dagoen Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean.

Auziaren mamia

LAUGARRENA.- AGISASek indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei zuzentzen zaizkien berehalako harrerarako edo egonaldi laburrerako zentroko (Urrats 1), egonaldi ertaineko zentroko (Urrats 2) eta autonomia pisuetako zerbitzuaren kontratazio espedientearen Baldintza Teknikoen Agiria (BTA) errekurritu du. Gizarte Politiketako Sailak izapidetu du eta Diputatuen Kontseiluak 2019ko urriaren 14ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartu da.

Zentro eta pisu horietan egoitza harrerako zerbitzua emango zaie indarkeria matxistaren biktima diren adinez nagusi edo adingabe emantzipatuei, haien seme-alaba adingabeei eta emakume horien mende dauden beste pertsona batzuei (adinez nagusi diren seme-alabak eta mendeko pertsona helduak), biktimentzako arreta eta esku-hartze feminista eta ahalduntzearen ikuspegitik, eta genero autokontzientzia eta egitura sexisten aintzatespena sustatuko dira, indarkeria egoerako elementu esanguratsu gisa.

interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.

TERCERO.- El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación y los pliegos se publicaron en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa, alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, el día 22 de octubre de 2019.

Fondo del asunto

CUARTO.- AGISAS recurre el Pliego de Prescripciones Técnicas (PPT) del expediente de contratación del servicio del centro de acogida inmediata o de corta estancia (Urrats 1), centro de acogida de media estancia (Urrats 2), y los pisos de autonomía para mujeres víctimas de violencia machista, tramitado por el Departamento de Políticas Sociales y aprobado mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral adoptado en sesión celebrada el 14 de octubre de 2019.

En esos centros y pisos se prestará el servicio de acogida residencial a mujeres mayores de edad o menores emancipadas víctimas de violencia machista, a sus hijos e hijas menores de edad y a otras personas a su cargo que dependan de estas mujeres (hijos e hijas mayores de edad y/o personas adultas dependientes), desde una perspectiva de atención e intervención feminista y empoderante para las víctimas, y se promoverá la autoconciencia de género y el reconocimiento de estructuras sexistas como elementos significativos en la situación de violencia que enfrentan las

mujeres.

BOSGARRENA.- AGISASek BTaren bi atal aurkaratu zituen: batetik, 5. atala, onuradunei arreta emateko betebeharrei buruzkoa; eta, bestetik, 7. atala, langileen profil profesionalei buruzkoa.

BTaren 5. atalean, esleipendunak gutxienez eskaini behar dituen gizarte zerbitzuen prestazioak eta horretarako beharrezkoa diren lanbide profilak jasotzen dira. AGISASek eskatzen du atal hauek baliogabetzea:

d) Bitartekaritza-Bitartekotza. Lanbide profila: Gizarte Hezkuntza edo Gizarte Lana.

e) Sozio-hezkuntzazko esku-hartzea. Lanbide profila: Gizarte Hezkuntza.

f) Esku-hartze psikosoziala: Lanbide profila: Psikologia.

g) Oinarrizko akonpainamendu soziala. Lanbide profila: Gizarte Hezkuntza edo Gizarte Lana.

Prestazio horietarako, eskatzen den lanbide profilari buruzko zehaztapen hau jaso behar da:

«Ordezkapenen eta kontratazio berrien kasuan, lanbide profil hauetako bat kontratatuko da: gizarteratzeko goi mailako teknikaria, ekonomia soziofamiliarreko teknikari espezialista, urritu psikikoen hezitzaile teknikari espezialista edo gizarte egokitzapeneko teknikari espezialista».

Aurreratu den bezala, errekurtsua jarri duen elkarteak BTaren 7. atala ere aurkaratzen du, zerbitzua emateko beharrezkoak diren profil profesionalen funtzioak zehazten dituen: zuzendaria, koordinatzaile teknikoa eta harrera zentro eta etxebizitzetako diziplina anitzeko talde teknikoa osatzen duten psikologoak, gizarte langileak eta gizarte hezitzaileak.

QUINTO.- AGISAS impugna dos apartados del PPT: por un lado, el apartado 5 relativo a las obligaciones en la atención a personas beneficiarias; y por otro, el apartado 7 referente a los perfiles profesionales del personal.

El apartado 5 del PPT contempla las prestaciones de servicios sociales que la adjudicataria ha de ofrecer como mínimo y los perfiles profesionales necesarios para ello. AGISAS solicita que se anulen los siguientes apartados:

d) Mediación-Intermediación. Perfil profesional: Educación Social o Trabajo Social.

e) Intervención socioeducativa. Perfil profesional: Educación Social.

f) Intervención psicosocial: Perfil profesional: Psicología.

g) Acompañamiento social básico. Perfil profesional: Educación Social o Trabajo Social.

Para estas prestaciones pretende que se incluya la siguiente determinación sobre el perfil profesional exigido:

“En el caso de sustituciones y nuevas contrataciones se contratará a alguno de los siguientes perfiles profesionales: técnico/a superior en integración social, técnico/a especialista en economía socio-familiar, técnico/a especialista educador de disminuidos psíquicos o técnico/a especialista en adaptación social”.

Como ya se ha adelantado, la asociación recurrente también impugna el apartado 7 del PPT, que determina las funciones de los perfiles profesionales necesarios para prestar el servicio: el director, el coordinador técnico y los psicólogos, trabajadores sociales y educadores sociales integrantes del equipo técnico multidisciplinar de los centros y pisos de acogida.



Errekurtsogileak eskatu du 7. atal hori baliogabetzea eta baldintza agiri zuzendu bat argitaratzea, non 7.3.4 atal bat txertatuko den: bertan zehaztuko dira diziiplina anitzeko teknikarien lantaldeko gizarteratzaileak, bakoitzak bete beharreko funtzioekin.

AGISASek adierazten du, BTA aipatutako moduan zuzentzen ez bada, gizarteratzaileek zein efektu akademiko eta profesional bereko bestelako titulazioek, esaterako, urritu psikikoen teknikari espezialista hezitzaileak, ekonomia soziofamiliarreko teknikari espezialistak eta gizarte egokitzapeneko teknikari espezialistak, tratu diskriminatzailea jasoko luketeela, eta beraz, profesional horiek berezko espazio profesionalak edukitzeko duten eskubidea urratuko litzatekeela.

SEIGARRENA.- 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 78.3. artikuluan xedatzen du Eusko Jaurlaritzak zehaztuko dituela Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa aplikatzeko beharrezko diren jarduera profesionalak gauzatzeko egokienak diren gaikuntza profesionalak.

Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza zentroak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren barne daude. Katalogo hori Gizarte Zerbitzuen Legearen 22. artikulua (2.4.6 atala) arautzen du eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak garatzen du (I. Eranskineko 2.4.6 fitxa).

Etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideen erregulazioa irailaren 11ko 148/2007 Dekretuan ageri da xedatuta, Euskal Autonomia Erkidego mailan.

Dekretu horren xedea da etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei zuzenduta eta EAEko lurralde eremuan kokatuta dauden harrera

La recurrente solicita que se anule este apartado 7 y se publique un pliego corregido que incorpore un nuevo apartado 7.3.4 en el que se incluya a los integradores sociales dentro del equipo técnico multidisciplinar, con las funciones que describe.

AGISAS señala que, de no corregirse el PPT en el sentido indicado, tanto los integradores sociales como otras titulaciones con los mismos efectos académicos y profesionales, como el técnico especialista educador de disminuidos psíquicos, el técnico especialista en economía socio-familiar y el técnico especialista en adaptación social, estarían recibiendo un trato discriminatorio y se estaría vulnerando el derecho de estos profesionales a un espacio profesional que deben tener.

SEXTO.- El artículo 78.3 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, dispone que el Gobierno Vasco determinará las cualificaciones profesionales idóneas para el ejercicio de las actividades profesionales necesarias para la aplicación del Catálogo de Prestaciones Sociales.

Los centros residenciales para mujeres víctimas de maltrato doméstico forman parte del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, regulado por el artículo 22 de la citada Ley de Servicios Sociales (apartado 2.4.6), y desarrollado por el Decreto 185/2015, de 6 de octubre (ficha 2.4.6 de su Anexo I).

La regulación de los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico está contenida, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el Decreto 148/2007, de 11 de septiembre.

Dicho decreto tiene por objeto establecer reglamentariamente los criterios y condiciones mínimas de calidad y funcionamiento de los

baliabideen kalitaterako eta funtzionamendurako gutxieneko irizpideak eta baldintzak erregelamenduz ezartzea, baliabide horien titulartasuna edozein izanik ere.

148/2007 Dekretuaren 4. artikuluan xedatzen da etxeko eremuan tratu xarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera baliabideen printzipio gidarietako bat dela profesionalizazioa [i] letra], baliabideak bete beharreko funtzioei dagokien kualifikazio teknikoak duten profesionalen esku egon daitezten. Profesional horiek lana behar bezala egiteko baliabide eta bitarteko egokiak eta nahikoak izan beharko dituzte.

Langile baliabideei dagokienez, 148/2007 Dekretuaren 17 eta 51. artikuluek xedatzen dute zuzendaritzaz arduratuko den pertsona bat izan beharko dutela harrera zerbitzuek. Halaber, profesional espezializatuekin osatutako diziplina anitzeko talde tekniko bat ere izan beharko dute, eta aipatutako xedapenek zehaztutako funtzioak betetzeko beharrezkoa den kopuru eta kualifikazio egokia izango dute.

Hori guztia kontuan hartuz, ondorioztatzen da diziplina anitzeko lantaldeak osatu behar dituzten pertsonak ez dutela zertan titulu jakin bat eduki behar aipatutako zerbitzuak eman ahal izateko; aitzitik, eskatutako funtzioak betetzeko beharrezkoa den kualifikazio egokia izatea eskatzen zaie. Ondorioz, kontratazio organoak balioespen tarte bat du beharrezko eta egokien jotzen duen lanbide kualifikazioa zehazteko, aplikatu beharreko araudian deskribatutako eginkizunak betetzeko eta kontratuaren xede den zerbitzua emateko.

ZAZPIGARRENA.- BTAko 8. atalean zehazten dira kontratuaren xede den zerbitzua emateko beharrezkoak diren dotazioak eta langile antolakuntza. Zehazki, hauek izango dira:

- Zuzendaria: gizarte zientzietan lizentziaduna edo

recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico, situados en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cualquiera que sea su titularidad.

El artículo 4 del Decreto 148/2007 señala que es un principio rector de tales recursos el de profesionalización [letra i)], con el propósito de que los recursos sean atendidos por profesionales con la cualificación técnica correspondiente a las funciones que desempeñan, debiendo contar siempre con los medios y recursos idóneos y suficientes para desarrollar su trabajo.

En lo que a recursos de personal se refiere, los artículos 17 y 51 del Decreto 148/2007 exigen que los recursos de acogida cuenten con una persona responsable de la dirección, así como con un equipo técnico multidisciplinar, compuesto por profesionales especializados, en número suficiente y con la cualificación necesaria e idónea para realizar las funciones que en dichos preceptos se contemplan.

De todo ello se deduce que la normativa citada no exige que las personas que componen los equipos técnicos multidisciplinarios deban estar en posesión de un título determinado para llevar a cabo la ejecución de los servicios de que se trata, sino que deberán disponer de la cualificación necesaria e idónea para realizar las funciones exigidas. En consecuencia, el órgano de contratación tiene un margen de apreciación para determinar la cualificación profesional que estima necesaria y más adecuada para realizar las funciones descritas por la normativa de aplicación y prestar el servicio objeto del contrato.

SÉPTIMO.- El apartado 8 del PPT determina la dotación y organización de personal necesarias para la prestación del servicio objeto del contrato, que consistirá en:

- Director/a: con licenciatura o grado en ciencias



graduduna eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren edo indarkeria matxistaren arloko prestakuntza espezifikoa duena.

- Zentroetako eta etxebizitzetako koordinatzaile teknikoa: lizentziatura edo gradua; C1 maila euskararen idatzizko eta ahozko ezagutzan, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren edo indarkeria matxistaren arloko prestakuntza espezifikoa duten zentroetako taldeetako kideetako bat.

- Zentroetan eta etxebizitzetan diziplina anitzeko talde bat beharko da, psikologian, gizarte lanetan eta gizarte hezkuntzan tituludunak eta zerbitzuetako langileak izango dituenak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren edo indarkeria matxistaren arloko prestakuntza espezifikoa izango dutenak.

Subrogatu daitezkeen langileen zerrendan (Administrazio Klausula Berezien Agiriaren XII. eranskinean dago jasota), 30 langile daude zerbitzuan, kategoria hauekin: garbiketako laguntzailea, zerbitzuetako laguntzailea, sukaldeko laguntzailea, hezitzailea, gizarte langilea, psikologoa, psikologo koordinatzailea eta zentroko eta programetako zuzendaria.

Era berean, BTAREN 8.4.5 atalak xedatzen du zerbitzuaren titularrak ordeztzen dituzten pertsonen gutxienez titulazio akademiko bera edo antzekoa izan beharko dutela. Ordezkapenak gaueko ordutegian edo larunbat, igande eta asteburuetan egiten dituzten pertsonen kasuan, gizarteratzaile titulua eduki ahal izango dute.

ZORTZIGARRENA.- Arestian aipatu den moduan, errekurtsogileak eskatu du gizarte hezkuntzako edo gizarte laneko lanbide profilen ordezkapenak eta kontratazio berriak egiteko, bitartekaritza-bitartekotza eta oinarritzko akonpainamendu sozialeko prestazioetarako eskatzen direnak, bai eta gizarte hezkuntzako eta

sociales y formación específica en materia de igualdad de mujeres y hombres y/o violencia machista.

- Coordinador/a técnico/a de centros y pisos: una de las personas que formen parte del equipo de los centros con licenciatura o grado, nivel C1 de conocimiento escrito y oral de euskera, y formación específica en materia de igualdad de mujeres y hombres y/o violencia machista.

- En los centros y pisos se requerirá un equipo multidisciplinar, compuesto por personas tituladas en psicología, en trabajo social y en educación social y por personal de servicios, que contarán con formación específica en materia de igualdad de mujeres y hombres y/o violencia machista.

En el listado de personal susceptible de subrogación, que se recoge en el Anexo XII del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, figuran un total de 30 personas empleadas en el servicio, con las categorías de auxiliar de limpieza, auxiliar de servicios, auxiliar de cocina, educador, trabajador social, psicólogo, psicólogo coordinador y director de centro y programas.

A su vez, el apartado 8.4.5 del PPT establece que las personas que sustituyan a las titulares del servicio deberán tener como mínimo la misma titulación académica o similar. En el caso de las personas que realicen las sustituciones en horario nocturno o de sábados, domingos y fines de semana, podrán tener la titulación de integrador social.

OCTAVO.- Como ya se ha señalado previamente, la recurrente solicita que en caso de sustituciones y nuevas contrataciones de los perfiles profesionales de educación social o trabajo social, exigidos para las prestaciones de mediación-intermediación y acompañamiento social básico, así como de los perfiles profesionales de

psikologiako lanbide profiletarako ere, hurrenez hurren, esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko prestazioetarako, lanbide profil hauetakoren bat kontratatzeko: gizarteratzeko goi mailako teknikaria, urritu psikikoen teknikari hezitzaile espezialista edo gizarte egokitzapeneko teknikari espezialista.

Hala ere, kontratazio organoaren ustez, kontratuaren xedea den zerbitzua eskaintzeko orduan, gai horren espezializatutako profesionalak behar dira, ahal bada, unibertitate ikasketak dituztenak. Hala, gaur egun ez da errekurtsogileak aipatutako profil profesionala behin betiko moduan txertatzeko premiarik ikusten, subrogatu beharreko lantalde profesionala ere kontuan hartuz, hain zuzen ere profil horren barne ez dagoena. Hala ere, horrek guztiak ez du eragozten, etorkizunean, baliabide berriak sortu eta lantalde berriak zehaztean, errekurtsogilearen eskaera kontuan hartzea.

Azaldutakoagatik, kontuan hartuta ez dagoela inolako araudirik etxeko eremuan tratu txarren biktima diren emakumeentzako harrera zentro eta zerbitzuetako langile baliabideek titulu jakin bat izan behar dutela eskatzen duenik, Auzitegi honen ustez, arrazoizkoa da kontratazio organoak BTAn aurreikusitako titulazioak eskatzeko erabakia eta justifikatuta dago, kontratuaren xede diren harrera zentroak kudeatu behar dituzten diziplina anitzeko talde teknikoei legez eskatzen zaizkien funtzioen arabera.

BEDERATZIGARRENA.- Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

educación social y de psicología, respectivamente, para las prestaciones de intervención socioeducativa y psicosocial, se exija que se contratará a alguno de los siguientes perfiles profesionales: técnico superior en integración social, técnico especialista educador de disminuidos psíquicos o técnico especialista en adaptación social.

Sin embargo, el órgano de contratación ha considerado que para prestar el servicio objeto del contrato se requieren profesionales especializados en la materia, preferentemente de nivel universitario, y que no se aprecia la necesidad de incluir en la actualidad y de forma permanente el perfil profesional que reclama la recurrente, teniendo en cuenta también el equipo profesional que se ha de subrogar, en el cual no se incluye ese perfil; sin perjuicio de que a futuro, ante la posible creación de nuevos recursos y definición de nuevos equipos, se puedan tener en consideración las demandas de la recurrente.

Por lo expuesto, teniendo en cuenta que no existe normativa alguna que exija que los recursos de personal en los centros y servicios de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico deban estar en posesión de un título determinado, este Tribunal considera que la decisión del órgano de contratación de exigir las titulaciones previstas en el PPT es razonable y está justificada en atención a las funciones legalmente exigidas a los equipos técnicos multidisciplinares que han de gestionar los centros de acogida objeto del contrato.

NOVENO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales



ERABAKITZEN DU

Ezatea ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES elkarteak aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

ACUERDA

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2020ko otsailaren 13a / San Sebastián, 13 de febrero de 2020.